HONDAKINEN PREBENTZIOAREN EUROPAR ASTEA
SEMANA EUROPEA DE LA PREVENCIÓN DE RESIDUOS

**2018**
AZAROA
NOVIEMBRE
**17-25**

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



José Ignacio Asensio Bazterra

INGURUMENEKO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO DIPUTATUA
DIPUTADO DE MEDIO AMBIENTE Y OBRAS HIDRÁULICAS

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurumen Zuzendaritzaren helburu estrategikoetako bat ekonomia zirkularra da. **Egun erabiltzeko eta botatzeko dagoen ekonomia linealaren eredua eraldatzea eta ekonomia zirkularrera egitea**, Gipuzkoa eredu horrek dakartzan gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-abantailak aprobetxatzeko gai izan dadin.

Ekonomia zirkularraz hitz egitean, hondakinen hierarkiaren maila guztietan esku hartu behar da, aukera berriak aprobetxatzeko gai izan behar da eta, horretarako, hondakina lehengai gisa ulertu behar da, ekoizpena eta xahubidea saihestu eta arazoa aukera bilakatu.

Hori dela eta, 2018. urte honetan –eta azken urteotako lanarekin jarraitzeko–, erakundeak, gizarte-eragileak eta eragile pribatuak duela hainbat urtetik hona lurraldean egiten ari diren lanaren gainean sentsibilizatzeko eta hura ikusarazteko kanpaina globalarekin jarraituko dugu; horrela, herritarrei trantsizio hori zein garrantzitsua den eta nolako aukera paregabea dakarren jakinaraziko diegu.

Uno de los objetivos estratégicos de la Dirección de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Gipuzkoa, es la Economía Circular. **Transformar el modelo actual, de economía lineal de usar y tirar, a una economía circular**, con el objetivo de que Gipuzkoa sea capaz de aprovechar las ventajas sociales, económicas y ambientales que este cambio de modelo supone.

Hablar de economía circular supone la necesidad de actuar en todos los niveles de la jerarquía de residuos, de ser capaces de aprovechar las nuevas oportunidades entendiendo el residuo como materia prima, evitando su producción y despilfarro, y convirtiendo un problema en una oportunidad.

Es por ello que este año 2018 —y continuando con el trabajo de los últimos años—, proseguiremos con la campaña global de sensibilización y visibilización del trabajo que las instituciones, agentes sociales y agentes privados vienen realizando desde hace años en el territorio, trasladando a la ciudadanía la importancia y oportunidad que supone esta transición.

**Guztiok gara kate baten zati, eta bere katebegiak ekonomia zirkularrerantz bideratu behar dira.**

**Todos formamos parte de una cadena cuyos eslabones deben avanzar hacia la economía circular.**

Gipuzkoako Foru Aldundia
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

ORAIN **INGURUMENA**




HONDAKINEN PREBENTZIOAREN EUROPAR ASTEA
SEMANA EUROPEA DE LA PREVENCIÓN DE RESIDUOS

**2018 • XI • 17-25**

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua

ORAIN **INGURUMENA**




## 16-21 AZAROA NOVIEMBRE

**ERAKUSKETA / EXPOSICIÓN**
ALDERDI EDERREN JARRITAKO KARPAN
CARPA EN ALDERDI EDER

### HONDAKINA ALA LEHENGAIA? ¿RESIDUO O MATERIA PRIMA?

Zer egiten da etxean arretaz bereizten dugun zaborrarekin? Zerbaitetarako balio al du? Hainbat hondakin lehengai gisa erabiltzen dituzten GK Recycling Gipuzkoako Birziklatze Klusterreko 9 enpresak hondakin horiekin zer material eta produktu fabrikatzen dituzten azalduko dute.

¿Qué se hace con la basura que separamos cuidadosamente en casa? ¿Sirve para algo? 9 empresas del Clúster del Reciclaje de Gipuzkoa, GK Recycling, que tratan diferentes residuos como materia prima, mostrarán qué materiales y productos fabrican a partir de esos residuos.




## 18-24 AZAROA NOVIEMBRE

**BIRZIKLAPEN KANPAINA / CAMPAÑA DE RECICLAJE**
GIPUZKOAKO UDALERRIAK ETA DONOSTIAKO AUZOAK
LOCALIDADES GUIPUZCOANAS Y BARRIOS DONOSTIARRAS

### "ITSASOTIK MAHAIRA" "DEL MAR A LA MESA"

Baztertutako plastikozko botila eta poltsak batzea, birziklatzeko eta poliesterrezko ehun bilakatzeko, erosketetarako orga eta poltsa berrerabilgarriak egiteko; poltsa eta orga horiek parte-hartzaileen artean zozketatuko dira.

Recogida de bolsas y botellas de plástico desechadas para reciclarlas y convertirlas en tela de poliéster para fabricar bolsas y carros de compra reutilizables que se sortearán entre los participantes.



## 19 AZAROA NOVIEMBRE

**AITORPEN-EGINTZA / ACTO DE RECONOCIMIENTO**
TRONUAREN GELA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
SALA DEL TRONO, DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

Gipuzkoako Elikagaien Bankuaren "Azken minutua" programan egindako lanagatik enpresa laguntzaileei esker ona adierazteko egintza.

Acto de reconocimiento a empresas colaboradoras por su labor en el programa "último minuto" del Banco de Alimentos de Gipuzkoa.

Azken minutuko OPERAZIOA
OPERACIÓN ÚLTIMO MINUTO



## 20-21 AZAROA NOVIEMBRE

**EHUNAK BERRERABILTZEKO TAILERRAK / TALLERES DE REUTILIZACIÓN TEXTIL**
OKENDO PLAZAKO KARPAN
CARPA PLAZA OKENDO
11:30-13:30 // 16:30-19:00

**DOAKO IZEN EMATEA / INSCRIPCIÓN GRATUITA:**
ingurugiro@gipuzkoa.eus

**Azaroak 20 de noviembre**
Arropa tradizionalen bigarren bizitza / Segunda vida de los trajes tradicionales

**Azaroak 21 de noviembre**
Osagarriak fabrikatzea arrantzarako sareekin / Fabricación de complementos a partir de redes de pesca

Muchas telas
HAND &LOVE MADE




## 21 AZAROA NOVIEMBRE

**JARDUNALDIA / JORNADA**
BASQUE CULINARY CENTER

### SUKALDARITZA IRAUNKORRA RESTAURACIÓN SOSTENIBLE

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Basque Culinary Centerrek elkarrekin dihardute, azpiproduktuak berrerabiliz, sormen gastronomikoari buruzko ikerketan oinarritutako proiektu batean. Jardunaldi honen helburu da lan hori iraunkortasuneko hainbat ikuspegitik erakustea: produktua, jatetxea, industria, hondakina, elikadura eta osasuna.

La Diputación Foral de Gipuzkoa junto al Basque Culinary Center, trabajan en un proyecto basado en la investigación sobre creación gastronómica con reutilización de subproductos. El objeto de esta jornada es visibilizar este trabajo desde distintas ópticas de sostenibilidad: producto, restaurante, industria, desperdicio, nutrición y salud.

basque culinary center



## 23 AZAROA NOVIEMBRE

**KONTZERTUA / CONCIERTO**
**BIRZIKLAPENAREN MUSIKA ORKESTRA**
**ORQUESTA MÚSICA DEL RECICLAJE**
GIPUZKOAKO ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA PARKEA / PARQUE CIENTÍFICO Y TECNOLÓGICO DE GIPUZKOA - 19:30

**ESKATU DOAKO SARRERA HEMEN / SOLICITA TU ENTRADA GRATUITA EN:**
ingurugiro@gipuzkoa.eus

Gizarte-proiektu honek gizarte-bazterketan bizi diren adingabeei musikako prestakuntza eskaintzen die eta, horrela, balioetan oinarrituta hezten ditu eta nork bere burua hobetzeko bide ematen du. Beren tresna birziklatuak eraikitzen parte hartuz, birziklapenak duen garrantziari buruzko kontzientzia sustatzen da.

Este proyecto social ofrece formación musical a menores en riesgo de exclusión social, educándoles en valores y favoreciendo su superación personal. Mediante la participación en la construcción de sus propios instrumentos reciclados, se promueve la conciencia sobre la importancia del reciclaje.

ecoembes




## 24 AZAROA NOVIEMBRE

**MODA IRAUNKORREKO III. DESFILEA**
**III DESFILE DE MODA SOSTENIBLE**
PALACIO MIRAMAR JAUREGIA - 19:00

GK green fashion moda jasangarriaren Gipuzkoako klusterreko eta Donostia Moda Klusterreko kide diren diseinugileen bildumez osatutako moda-desfilea.

Desfile de moda sostenible formado por colecciones de diseñadores miembros del clúster guipuzcoano de la moda sostenible GK green fashion y el Clúster Donostia Moda.

ANTOLATZAILEA
ORGANIZADOR

LAGUNTZAILEAK
COLABORADORES

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN Alkateordetza Tenencia de Alcaldía
donostia moda



## 19-22 AZAROA NOVIEMBRE

**KIROLA ETA BIRZIKLAPENA KANPAINA**
**CAMPAÑA DEPORTE Y RECICLAJE**
GIZARTE SAREAK + WEBGUNEA / RR.SS. + WEB

### "GUREKIN BIRZIKLATU" "RECICLA CON NOSOTROS"

Gipuzkoa Basket Klubarekin batera, gaikako bilketak duen garrantziaren inguruko sentsibilizazio-kanpaina diseinatu da, gizarte-sareen bidez, bideo, lehiaketa eta erronkekin.

Junto con el Club Gipuzkoa Basket se ha diseñado una campaña de sensibilización a través de las redes sociales sobre la importancia de la recogida selectiva con vídeos, concursos y retos.

@gipuzkoabasket | www.gipuzkoabasket.com